

XXV. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Jainko Jauna, lege bakar hau eman diguzu:
Zu eta lagunurkoa maitatzea;
iguzu, zure aginduak betez,
betiko bizitzara irits gaitezela.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Jak 2, 12a. 17-20

Eman diezaiogun heriotza lotsagarria.

Jakinduriaren liburutik

Honela esan zuten gaiztoek:
«Sareak jar diezazkiogun zintzoari,
ikus dezagun egiazkoak diren haren hitzak;
azter dezagun haren biziaren azkena.
Zintzoa bada eta Jainkoaren seme, zainduko du,
eta aterako, etsaien eskuetatik.
Sar dezagun irainetan eta oinazetan,
haren ona ezagutzeko eta egonaria neurtzeko.
Eman diezaiogun heriotza lotsagarria,
zaintzailea baduela ezan baitu».

ERANTZUN SALMOA: Sal 53, 3-4. 5. 6 eta 8

R/. Jauna da nire biziaren eusle.

Ene Jainko, zure izenagatik salba nazazu,
ahaltsua zarenez, auzi egidazu.
Entzun, ene Jainko, nire otoitza,
adi nire ahoko hitzak. R/.

Harroak nire aurka jaiki baitira,
eta zakarrak ni hil nahian dabilta:
ez dute Jainkoa begien aurrean. R/.

Nik, ordea, Jainkoa dut laguntzaile,
Jauna da nire biziaren eusle.
Gogotik eskainiko dizut oparia,
ospatuko dut, Jauna, zure izena, ona baita. R/.

II. IRAKURGAIA: St 3, 16-4, 3

*Bakezaleek bakea ereiten dute,
eta bakeak zuz*

Santiago Apostoluaren epistolatik

Senide maiteok: Elkar ikustezina eta itsaikeria dauden tokian, han daude nahaspila eta era guztietako egite okerrak. Goitik datorren jakinduria, berriz, lehenik garbia da, eta gainera baketsua, eratsua, apala, errukiz eta egintza onez betea, alderdikeria eta zurikeriarik gabea. Bakezaleek bakea ereiten dute, eta bakeak zuzentasuna dakar ondorio.

Nondik datoz zuen arteko haserreak eta borrokak? Ez ote datoz, zuen barruan borrokan ari diren grina txarretatik? Irrikatzen duzue eta iristen ez; hil egiten duzue; bekaitzez beteak zaudete eta ez duzue ezer iristen; borroka eta gudu egiten diozue elkarri. Ez daukazue, eskatzen ez duzuelako; eskatzen duzue eta ez duzue ezer hartzen, gaizki eskatzen duzuelako, zuen grinak asetzeagatik.

EBANJELIOA: Mk 9, 30-37

Aleluia: 2 Ts 2, 14

R/. Aleluia.

V/. Jainkoak dei egin dizue gure berri onaren bidez,
Jesu Kristo gure Jaunaren aintza
irits dezazuen. R/.

*Gizonaren Semea gizakien esku utzia izango da.
Lehenengo izan nahi duena, izan bedi denetan azken.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, Jesus eta bere ikasleak menditik aldegin eta Galilean barrena zihoazen; ez zuen nahi, hori inork jakiterik, ikasleei erakusten ari baitzitzaien. Honela esaten zien: «Gizonaren Semea gizakien esku utzia izango da; hil egingo dute; baina hil eta hirugarren egunean biztuko da». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen esaten zienik; eta beldur ematen zien galdetzeak.

Iritsi ziren Kafarnauna; eta etxean zeudela, Jesusek galdetu zien: «Zer eztabaida zenuten bidean?» Haiek, ordea, isilik; handiena nor zen, hori izan baitzuten beren arteko eztabaida.

Eseri zen Jesus, deitu zien Hamabiei, eta esan zien: «Inork lehenengo izan nahi badu, izan bedi denetan azken eta guztien zerbitzari».

Eta haurtxo bat hartu eta haien erdian jarri zuen, eta hura besarkaturik, esan zien: «Honelako haurtxo bat nire izenean hartzen duenak, Ni hartzen nau; eta Ni hartzen nauenak, ez nau Ni hartzen, Ni bidali nauena baizik».

Oparigaien gainekoa

Bihotz onez hartu, Jauna, zeure herriaren eskaintza:
fede beroz aitortzen duena
sakramentuen bidez irits dezan.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Indar itzazu, Jauna, zeure graziaz
sakramentu hauek ospatu dituztenak,
misterio hauetan eta bizitza guztian

zure salbamenaren fruituak jaso ditzaten.
Jesu Kristo.